

“PRINCIPE E VIANA”



SUPLEMENTO EN VASCUENCE
DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Delegado para el Suplemento
en euskara
MARCELINO GARDE

XVI^o gn. urtea
149^o gn. zenbakia

Iruña - 1982 - Otsaila

Franq. conc.
N.º clas. 34/60

Director de la Institución
Príncipe de Viana
FERNANDO REDON HUICI

Bizia lanean ari

Urtarrilla! Otsaila gero! Il otzak, il ixillak, il
illunak! Ez ñondik biziaren aztarnarik nabari!
Ala ta guztiz, ordea, bizia lanean ari!

Lanean, gau luze illunen altzoan; lanean,
lur billuts izoztuaren azpian.

Badu izadiak indarra. Alor landuaren sa-
belean, nekazariak ereindako azia erne-miñez
jota dago abenduaz gero. Erne-miñez jota,
baso izkutuan, pago lerdenetik jausi zen ez-
kurra.

Izadiaren indarra. Gizonak lagundu le-
zaioke, eta lagundu bear dio, izadizko indar
orri, baiña maiteki, begirune aundiz, izadiaren
izkutuki edo misterio ori, eta izkutuki orren
atzetik dagoen Izadiaren Egillea, belauneko
gurtuz.


Animarik gabeko izakien gaidik ere, egu-
noro, eten gabe ari zaigu bizia lanean, ama
biurtzen den emakume bakoitzaren altzo sa-

garatuan. Or ere, mirarizko altzo sagaratu or-
tan, lagundu lezaioke eta lagundu bear dio
gizonen yakintzak biziari. Baiña, lagundu ba-
karrik eta belauneko, otoitzean bezala, or milla
aldiz aundiagoa eta arrigarriagoa bait da mi-
raria, eta milla aldiz urbillago bait dago bizi
ororen Egillea.

Ixila izanagatik, emankorra da beti zuzenki
egindako lana. Zarata eta iskanbillak, ordea,
ekaitzak bezala, ez dute -geienez, beintzat-
okerra eta gaitza besterik ekartzen.

Errien altzoan ere, lanean ari izaten da Bi-
zia. Baiña, errien altzoko lan ori guk egin bea-
rra izaten da.

Guk ere, euskaldunok, badugu zer egiñik
aski gure Euskalerra'n, gure Naparroa ontan
bereziki, gure Naparroa onek Euskalerra izaten
jarraitzea nai ba'dugu.



Lur uts! Lur billuts! Negu gorrian ez da biziaren aztarnarik Naparroa'ko alorretan agertzen. Ala ere, bizia lanean ari... isilpean, izkutuan, zaratarik gabe. Bere garaiz emanen digute uzta ugaria -bizi, itxaropen eta bai gari uzta ere- Irati ibaiaren ertzeko lur emankor auek. (I. VILLANUEVA argazkia).

EUSKAL ERRIKO LEIOA

NAPARROA'K 172.040 TELEFONO EDO URRUTIZKIN DITU

Berri ori Telefonika Elkarte Nagusiak adierazi du; baita ere esan dute beste 2.683 urrutizkin berri ezarriak izango direla, an eta emen, Naparroa'n zear.

Ez litzake txarra izango urrutizkiñetan gure izkuntza, «napartarren izkuntza», maizago erabilliko ba'genu; orduan, bai, pozgarri izango litzakela orrelako aurrerapena gure artean eukitzea.

NAPARROA'KO LURPEAN PETROLEORIK EZ

Orain dela bi illabete, beste tresna bat asia da lanean Naparroa'ko lurraldean, petroleo edo arrolio billa. Ogeigarren ekiñaldia da oraingo au «forudun lurralde» ontan; lendabizi, Gastiain'en asi ziren 1923'gn. urtean.

Oraingo txandan, Agoitz'ko inguruetan, Nagore irian ari dira zulatu ta zulatu; ta, 4.000 metro zulatzera eldu arren, dena alperrikako lana izan da.

Azkenik, Arre'n, Iruña-aldean, ari zaizkigu zulatzalle oiek jo-ta-ke lanean, 4.500 metroko zulaketa egiteko asmoan.

Zulaketa guzietan gas pittin bar ateratzen omen da, baiñan neurri gutxian; orregatik, dena utzi-ta beste lekutara jo bear.

Zulaketa bakoitzean, 600 milloi pe-zeta ereiñita gelditzen oi dira, eta utsaren truke, geienetan... Diru banatze oiek denak ongi ereiñiak izanen litzateke, azken orduan, an edo emen,




Arrolioa billatzeko, Iruña'ko inguruan Arre irian kokatu duten tresna. (EFE argazkia).

petroleo edo gas pilla aundiren bat sortuko ba'litzake.

J. CARO BAROJA JAUNA «ATENEO GUIPUZCOANO»'REN LENDAKARI AUKERATUA

Ordu pare bateko batzarre baten ondoren, Caro Baroja jauna Donostia'ko Elkarte ortako Lendakari ago batez aukeratua izana da.

Berarekin batera, beste lankide auek izan dira autatuak: Manuel Agud Querol, Angel García Ronda, Petrirena Anderena, Luis Felipe Poausa, Dolores Casi, Raúl Guerra Garrido, Carlos



Julio Caro Baroja Jauna.

Santamaria, Javier Gómez Piñeiro ta Carlos Sanz.



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ROYALE ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

BATZAR AGIRIA

Iruñean, Nafarroako Museo aretoan, 1982'eko urtarrilaren 29an ospatu du arratsaldeko lauetan Euskaltzaindiak hileroko bere batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, A. Irigoyen, E. Knör, P. Lafitte, E. Larre, P. Ondarra, J. San Martin, J.M. Satrustegi eta A. Zavala, euskaltzain jaunak. L. Akesolo, J. Apecechea, J.A. Arana, J.M. Azpiroz, J. Basterretxea, P. Charritton, P. Diez de Ulzurrun, M. Garde, J.L. Lizundia eta J.J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J.M. Satrustegi idazkari dela.

J.L. Davant, X. Diharce eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Aurreko agirian X. Diharce jaunaren izena falta dela esaten duen oharra jaso da. Hain zuzen, arratsaldeko batzarrean etortzerik izan ez bazuen ere, goizeko eta bezperako euskaltzain osoen bileretan egon zen.

Eta besterik gabe onartu da agiria.

Euskaltzainburuak N. Etxaniz ohorezko euskaltzainaren hil berria jakinerazi du. Bezperan, bildu ondoan jakin genuenez berria, beste batzar batean eginen da goratzarrezko aipamena. Goian bego.

V. Villasante Oviedon izan da, J. San Martin bidelagun duela, Asturiasko Hizkuntz Akademiaren ohorezko epea gaur bete da. Lau euskaltzainen izkribuak jaso dira. Datorren batzarrean emango da horien berri.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntz Kontseilari jaunak egindako eskari bati erantzunez, Euskararen Aholku-batzordeako partaide Euskaltzaindiaren izenean J. Haritschelhar, buruordea, proposatzen da.

A. Zubikaray eta beste zenbait legunek izenpeturiko gutuna jaso da, bizkaieraren egoera txarra dela eta kezka larria eskari batzuketan agertuz. Aztertu ondoan erantzutuz zale.

BATZORDEEN BERRI

1) EUSKERA. R. Badiolak adierazi duenez, 1982. urteko lehen alea, bildumako XXVII.alea, inprimatzeko prest dago. Lan guzien banaketa egin da.

2) LEKUKOAK. Txomin Peillen jaunak, Josef Egiategi xuberotarraren «Filosofo Huskaldunaren Ekhela» izeneko liburua gertatu du bilduma honetarako. Lino Akesolok, beste alde, Gasteluçarren «Eguia Catholicac» izenekoa dakar.

3) OINARRIZKO EUSKARA. Imanol Berriatuak utzitako hutsunea bete beharra zegoen eta Euskaltzaindiak, eritzi guziak entzunik, bidean diren lanak burutzen joateko babesa ematen dio batzordeari. J. San Martin jaunak eman du goizeko bilkuran esandakoen berri.

TXOSTENAK

Euskaltzaindiak dituen eginkizunen sailkapenaz mintzatu da J.M. Satrustegi idazkaria. Zenbait batzorde desagerturik, Dialektologia, Gramatika eta Hiztegi gintza izango dira, besteak beste, ekintza nagusiak. Liburu Gordailua ere garrantzi handiko ekintza gertatu da eta langile bat horretaz arduratuko da. Azkue Bibliotekan ere bada lan.

F. Ondarra euskaltzainak Garesko euskararen bereiztasun zenbait aipatu ditu bere txostenen eta elkarrizketa bizia sortu du entzunleen artean.

J.M. Azpiroz euskaltzain urgazteak euskal hiztegiaren gehigarriak jaso ditu Nafarroan, eta hirugarren atala aurkeztu du gaur, Leitza eta Lesakan bildutakoekin.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Ona emen Don Julio'ren itz batzu:
«Ateneo batek, eta onelako Elkarte guziek jakintza bakarra landu bear luteke. Zoritxarrez, ez da beti ala gertatzen».

Lendakari berri au, politikan sartzen ez den aietakoa dugu. Elkarte au ere ala izan dedilla nai du, eta asarre-borrorarik ez dedilla sortu Donostia'ko Ateneoa'n, Madrid'en sortu den bezala.

«GOIZ-ARGI» ALDIZKARIA BERRIZ ATERATZEN DA

«Goiz-Argi» euskal astekaria berriz asi da karrikara ateratzen. Poz aundia eman digu bere agertzeak: euskara utsez idazten dutelako, baita Euskalerrria'ren aferak —aldekoak eta aurka-koak— sakonki aztertu ta argi ta garbi esan ere.

GOIZ-ARGI

BURUJABETZAREN ALDE

BEAR AINAKO GERTUERARIK GEBEKO IRAKASLEAK



«Frankismoaren garaietan, eusko jaurilaritzarik eta babes-biderik ez geneukanean, —naiz zailtasunak, eragozpenak, baihetak eta amendak etorri— bizirik iraun zuen «Goiz-Argi»'k. Orain, diru-iturriak eta babes-bideak Euskalerrria'n bertan dauzkagunean, bizi eziñik eta atera gabe irautera beartua...»

Ala ere, eskerrak ematen dizkie bai Eusko Jaurilaritzari eta bai Gipuzkoa'ko Diputazioari, batek 185.000 pezta eta besteak 268.000 pezta opa izan dizkiote.

Bitartean, larri ta eziñean, «Goiz-Argi» maiteak aurrera jarraituko dio Euskarari ta Euskalerrria'ri leialki serbitzen.

«ARGIA»'RI IRU MILLOI!

Izparringi edo periodikoetan zabaldu denez, Gipuzkoa'ko Diputazioaren «Euskara Batzordea»'k iru milloi pezta «Argia»'ri emateko asmoak ditu. «**Tratamendu berezia bear du «Argia»'k**», esan zuen Batzorde ortako jaun eta jabe dabillen Odriozola jaunak.

BIOTZEZ ALDATU ETA BAITA LARRUZ ERE!

Urtero bezala, aurten ere mintzatu zaigu garizumaz Aita Santua. Aita Santua mundu guziarentzat mintzatzen da. Kristautentzat, lendabizi; baiña, baita kristau ez diren borondate oneko gizonentzat ere. Aita Santuaren itzak, ebangelioko ereillearen aziak bezala, bizia darama berekin, eta beti ematen du frutua, zitua.

Ona oraingo itzaldiaren muiña:

Garizuma, aldaketa-garaia da. Aldaketa ori, penitentzi egiñaz erdiesten da. Penitentzi-egitea ez da gauza ituna, alaia baizik. Penitentzi-egitea gure burua gaiztakeriz, itxuskeriz, okerkeriz, zinkeriz, eta aukeri oroz garbitzea bait da. Nungo emakumeri ez zaio bere gorputza edertzerik atsegin? Bai al da gaiñetik aukeria kentzea atsegin ez zaion gizasemerik?

Aldaketa ori Jainkoari begira —Jainkoari poz emateko—, eta gizonari begira —gizonari laguntza eskeintzeko—, egin bear omen dugu.

Aldaketa ortan, biotza aldatu bear omen dugu lendabizi; baiña, baita larrua ere. Biotza garbitzea, gure anima eta gure animeko naimen, asmo, gogamen eta sentipenak garbitzea omen da. Larrua berriz, gure larrua, gu gerori ez geran, baiña gureak ditugu gauzak, omen dira: gure aberastasuna, gure kultura, eta baita gure kristautasuna ere. Eta larrua aldatzea, gureak diren gauzak oietatik al dugun guztia bear gorrikan dauden lagun urkoei ematea omen da. Lagun urkoa maitatzen duenak maitatzen omen du, bâ, Jaungoikoa.

Beste euskal aldizkariei milloika emateko dirua bai al da?

AITA SANTUA AFRIKA'N

Gure Aita Santua Afrika aldean ibillia dugu, Elizaren agurra eramanez. Egonik da Nigeria, Ginea, Benin eta beste lurraldetan, angokristauei betiko Elizaren ikasbide zuzenak erakutsiz eta itxaropen bizia txertatuz. Beste erakutsi askoren artean, ona emen Aita Santuaren itzak:

«**Gizona ankapetu, eta bere izerdiaz baliatzea, Jaungoikoaren aurka jokatzea itza da.**»

«**Afrikatarrak, leialki jokatu beti zuen errien alde**»

Benin'en arrera ona izan zuten, naiz eta lurralde au marxistarren agindupean arkitu; bere itzaldian aipatu zuen bertako apaiza giltzapean arkitzen dena, esanez Aita Santua asmoz eta gogoz berarekin bat egiñik dela.



Aita Santua Afrika'ra egin berria duen ibilaldian.

FIDEL CASTRO'REN ARREBA KUBA'TIK IGES EGIN ZUENAK ORAIN IPAR-AMERIKAR BIURTU

Ez da oraingo gauza; badira ogei urte, Fidel Castro'ren aurka mintzatu zela bere arreba Juanita. Bere anaia azpisuge bezalakoa zela eta Kuba'ri traizioa egin ziola esan zuen aspaldi artan.

Bost urtez bizi zen bere Aberrian, andik Batista'ren indarkeria uxatuz gero; baiñan, anaiarena gogorragoa ustez, Fidel'ekin asarretu, eta 1964'gn. urtean jo zuen Ipar Amerika'ra kubatar erbestutakoen artean bizitzera. Miami urian, «Pequeña Habana» izeneko auzoan du ogibidea: farmazia ttipi bat, bizitzeko naikoa.

Amerika'ko Laterri Elkartuetan bost urtez egonez gero, amerikar erritartasuna eskatu daiteke. Juanita Castro orain berrogeita bost urte dituenak, utzi zuen beste amairu urte geiago joaten... «**Erabaki sendoa nai nuen, eta ez ortaz gero ibilli gaur negar eta biar damu; orain egin dudana, ongi pentsaturik egin dut. Badakit biotza beti Kuba'n izaneren dudala, baiña orain Laterri Elkartuen alde ziñez eta gogotik egin dezaket lana.**»

Zer pentsatuko du Fidel Castro'k, beraren ondotik iges egiñik arrebak artu duen erabakiaz? Juanita'k, berriz, esan du:

«**Badira amabost urte anaiarekin arremarik ez dudala...**»

ETORRIKO OTE ZAIGU EUSKALERRI'RA?

Datorren Urrila'n, Avila'ko Santa Teresa'ren laugarren Eun-urte betetzea izanen delarik, antxe, Madrid, Salamanca, Santiago ta beste España'ko irietan agertuko da Aita Santua.

Aita Santuaren joan-etorriaren susmurra zabaldu orduko, berri ori jakin bezain laister, berealaxe zabaldu zen Euskalerrri'ra etorri gabe ez zela geldituko Xabier eta Loiola'ko Santutegiak ikustera.

Ori nai dugu biotz biotzez emen bizi garen geienek, eta ziur gaude euskaldun guzientzat onuragarri izanen dela gertakizun ori, gure siñesmena sutzpeltu eta indarberritzeko.

«NAPARROA'N ZEAR KULTUR-IBILLALDIA»

Idazlan
eta marrazki oberenak
aurkeztu zituzten aurrei
sarien banaketa



D. Jesús Malón, Forudun Diputadu Jaunak egin zuen sarien banaketa (EFE argazkia).

Napar Diputazioaren Ezikêta-Saillaren asmo ederra: napar aur bakoitzak Naparroa guzia dezala.

Ortarako, «Naparroa'n zear kultur-ibillaldiak» bide direlarik, Erribera'ko aurrak Mendi-arteko lurraldetara era-

matea eta, alderantziz, Menditarrak Erribera'ko aldera.

Joan zen ikastaroan, «Iñigo Arista Taldea» lagun, Naparroa'n Estadu-eskoletako EGB'ko 2.000 ikaslek parte artu zuten kultur-ekiñaldi artan. Dene-tara, IRU milloi, gora-beera.

Geroago, Sariketa berezi bat, ibillaldian ikusi ta ikasi zutena, aurrek erakutsi dezaten idazlan eta marrazki bidez.

Otsailla'ren 13'an, Diputazioaren Jauregian, sari-banaketaren jaia: 19 idazle ta 40 marrazkilarien bakoitzari fotografi-tresna bana. Garai ortan, anitz ongi mintzatu zen Malon Diputadu Jauna bere itzalditxoan, kultur-ekiñaldi orren garrantzia adieraziz.

«Garrantzi aundikoa da gu denok, naparrak garelakoz, pozik arkitzea, ta Naparroa'ko gauz denak —gureak bait dira— pozik artzea. Ortarako gure lurralde guziak ongi ezagutzea bearrezkoa da, ta baita ere ezagutu gure bizilagunak eta oiturak».

«Naparroa'ko gauz denetan» bereziena ta zaarrena, Euskara dugu; aintziñean, Naparroa'ko Errege batek «lingua navarrorum», «nafartarren izkuntza», deitu zuen Euskara.

Ar bitzate kontuan Diputaduaren itzak kultur-ekintzaren eragilleek, ez dedin oztasunean gal «Naparroa'ko gauz denetan» bitxi baliotsuena. Oraingoan, beintzat, ez dute nafartar erdaldun aurrek euskararen aberastasuna azaldu, euskal errietan kultur-ibillaldiko ibiltzekoan. Eta zergatik ez da iñor euskaraz baliatzen, ainbeste gauza berrien azalpenak ematekoan, nafartar euskaldun aurrek errezago aietaz jabetzeko? Idaz-lantxo bakarria bidali zuten eus-

karaz egiñik Sariketan sartzeko; zoritxarrez ez zuten saritu. Geroago, beste euskal idazlan bat eldu zitzaigun PRINCIPE DE VIANA'ri. Aldizkari ontan argitaratzen ditugu biak. Zorionak, euskal idazle gazteok! Bereala artuko dituzue euskal liburu batzuk eta bakoitzak 500 peztako saria bana.

BEIN DA BERRIZ ARALAR'KO ESMAILAK

«AGUR, MADAMA GAUTHIER!»

Aralar'ko Aidareburua ebatsi zutenetik onuntz, gure mendi sakaratuaren izena maiz agertzen da egunkarietan.

Zenbait lekutan opatutako zatiak: Paris, Erroma'n, Beljika'ko Gante'n, eta lapurrak —Erik «El Belga» buru delarik— arrapatuak izan direla, denak berri onak dira.

Beste aldetik, erakusketak egiteko asmoa adierazi dute, onela gure esmail bereziak ikusi daitezke gure mendietara igo gabe. Eta gauza anitz esaten da —«**Ainbeste buru, ainbeste aburu**»— Aralar'ko Aldareburua'ren azken-tokiaz: —«**Beti egon den tokian**»—. —«**Ez; Iruña'n**». —«**Elizan, elizarako egiña bait zen**». —«**Museo batean, obeki!**» **Eta olaxe.**

Esmail alorrean jakintsuena dugu, noski, Madama Gauthier, Limoges'ko Liburutegiaren Zuzendaria. Eta «Principe de Viana» Erakundeak deitua Iruña'n izan da Aralar'ko esmailen ikerketa zeatz-meatz egiten. Eta bear diren guzak esan ere.

«Esmail auek aurki Iruña'n egin ziren 1175'gnaren aldera, eta Aralar'ko San Migel'erako egiñak dira».

Museo batean ziurtasun osorik al den galdetzerakoan, zion: «Baditute Limoges'ko Museoan, dudarik gabe, ziurtasun neurri oberenak; ala ere, esmail guziak ebatsiak ziren igaz».

Kontutan eduki bear dira ere andre onek Nafar-Telebistan eman zituen erantzun zenbait.

«Esmail oiek ain baliotsuak eta ain auskorak (quebradizo) izanik, ez lirake alde batetik bestera erabilli bear. Santuak ez dira beilari edo peregrino-etara joaten, peregrinoak Santutegietara joaten dira». *Eta irrimurtzi esankor batekin, onela bukaru zuen: «San Migel'en egon bear dutela esmailek uste dut».*

Au bukatzeko, gure «Artxueta»'ko Unaia'k «Diario'ko Nafar Izkuntzan Orrian» ekarri zituen esker-onezko itzak:

«*Jakintsua ezezik, zentzuduna ere bazara, Madama! Zure sensenean zaude. Eskerrik asko!*».



Madeleine Gauthier Andrea, Limoges'ko Liburutegiaren Zuzendaria, Iruñan izana Aralar'ko esmailau aztertzeko (MENA argazkia).

Erreuma arintzeko

(Jarraipena)

Mediku zaarra

Gure soñari egin-arazi dizkagun jardun-aldi edo ariketak.

Egunoro-egunoro, bein ere utsik egin gabe, egin bear diren ariketak, ordu laurden bat iraun bear dute. Ortarako, bakoitzak aukeratu bear ditu ze ariketak egin: lepo, edo bizkar-ezurrekoak; gerri-aldekoak edo beso-ankekoak; gaitza nun dagon, ango ariketak egiñez.


Ariketak pixkanaka-pixkanaka geitzen joan bear dute, bat-batean gogor ekiñez, nekatzeraño ta min artzeraño joan gabe. Ariketak min pixka bat egin arren, jarrai sayoak egiten; baiña, miñak urrengo egunean ere iraungo ba'lu, orduan utzi aldi batean sayoak egiteari.

Oiñezko ibillaldiak, toki berdiñean edo lauan egin beti; ta ez ibilli geyegi miña sort-arazteraño; ta ibillaldi baten ondoren, atsendendu geldirik egonez, ibillaldiak iraun duen bi alako atsedean aldia artuz.



ARIKETAK

Ona emen egin bear diren ariketak:



① Lurrean egon etzanda 5/10 minututan, lepo-zokoan bigungarri bat jarrita; ta gorputza guttiz utzita, illik ba'lego bezala.

② Alki batean exeririk, ta sorbaldak orma ikutzen duela, erabili burua atzera ta aurrera; agoa ertsirik, kokotzak bularra ikutu dezala beerakoan; eta ondoren kokotza al den geina igoaz atzera egiterakoan. Lepoaren ariketa au, 15 aldiz.

③ Aurreneko irudian (a) bezala jarri, ta ondoren aldatu bigarren irudiak (b) agertzen duen eran; era ontan minutu-erdi bat egonez. Ariketa au egin 5 aldiz. Ori da gerriaren ariketa.

④ Etzanda, gerri-aldea estutu lurrean, eta esku-ankak jarri irudian agertzen diren bezala, eta egoera ortan egon minutu-erdi bat. Ariketa ori egin 5 aldiz. Au ere gerriaren ariketa da.

⑤ Ormaren ondoan, aurrez-aurre jarri gabe, egon sayeska, eta txandaka igo bi besoak al den goienara, eta ondoren jetxi poliki-poliki. Ariketa ori 15/20 aldiz egin beso bakoitzarekin. Besogaiñentzako ariketa dugu au.

⑥ Alki batean exeririk, ta sorbaldak orma ikutuz, igo txandaka bi besoak irudiak agertzen duen bezala. Beso bakoitza 20 aldiz. Besogaiñentzako ariketa.

⑦ Exeririk orma ikutuz, sorbalda zuzen-zuzen, eta besoak soñia ikutzen dutela ta besondoak aurrera jarriz, bira egin esku bakoitzarekin, lendabizi esku-azpia goraka jarriz, eta ondoren beraka, au da esku-gaiña goraka. Ariketa ori egin 30 aldiz. Au da esku-muturrentzako ariketa.

⑧ Irudiak agertzen duen bezala, etzan lurrean, izter-ankak zuzen izanik, igo txandaka bi anak al den goienara. Anka bakoitza 30 aldiz. Au izter-ondoaren ariketa dugu.

⑨ Irudian agertzen den egoeratik, bi belau-nak batera zabaldu bazterrera ta ondoren etorri lenengo egoerara. Ariketa au ere izter-ondoko giltzaduraren onerako da. Geldi-geldi, au da poliki-poliki, egin 30 aldiz.

⑩ Mai-ertze batean exeririk, anak lurrik ikutzen ez dituztela, igo ta jetxi txandaka; bi anak 10 aldiz bakoitza. Ariketa au egitean, anka bakoitzean 4 kiloko astungarri zerbait ezarriz gero, obe. Ariketa au belau-nako giltzadurarentzat da.

Sabel-barrendik aurtxo sortu-berri baten «Egunerokoa»

Urrilla'ren 5

Gaur izan naiz sortua. Bizi naiz! Nere amak ez daki oraindik banaizenik ere; baña, banaiz! Asi da nere Bizia! Nexkattoa naiz; oso nexkatto ttipia; gari aletxo koxkor bat baño txikiagoa. Baña «Ni» naiz. «Ni!». Urdiñak izango dira nere begiak, eta urre-orailla nere illea. Naiz ni oraindik ain txikia izan, zer izango naizen eta nolakoa izango naizen, aurre-antolatua dato guztia nere-baitan. Baita loreak oso atsegin izango zaikidala ere; antolatua dago aurretik guztia.

Urrilla'ren 19

Ari naiz zerbait azitzen, baña oso ttiki-ttiki-ttikia naiz oraindik. Jainkoari eskerraz, ematen dit nere amatxok bear dedan guztia. Je! Ta oraindik ez daki berak bere barnean naramakianik ere! Ez al da arrigarria? Baña, naiz berak deus jakin ez, amatxok mantentzen nau odolaren bidez. Ona izan bear du, oso ona izan bear du, naitanaiez nere amatxok. Bai omen dira, or kanpoko mundu ortan, nik izaterik ez dedala esaten duten gizon zakarrak. Ni ez naizela amatxoren gorputzaren zati bat besterik omen diote; ni ez naizela bizi; nere ama bakarrik bizi dala; ni ez naizela «pertsonea». Gezurra diote. Ni «pertsonea» naiz, naiz txikia izan. Ogi apur bat ogi dan bezala, pertsona naiz ni ere. Bizi naiz! Nere amak badu bizitza bat, bere bizitza; baña, nik ere badut nereea, beste bizitza bat, nere bizitza!

Urrilla'ren 22

Nere aotxoa ba da bere ezpain txikiak itxi-iriki egiteko diña. Zoragarria! Emendik urte betera irri egiteko ere bai izango naiz! Ta geroago, itzegiten ikasi naiean asiko naiz. Badakit oraintxe ere zen izango dan aurren-aurrena esango dedan itza: «a...ma!», «a...ma!» AMA!

Urrilla'ren 25

Gaur asi da, poliki-poliki, pilpilka nere biotza! Gaurgero, pil-pil, pil-pil, taupaka ariko da iñoiz gelditu ere gabe, nere bizitza guztian. ¿Emendik zenbat urtera, nekaturik eta auldurik, geldituko da noizbait nere biotz au? Biotzaren gelditze ura izango da nere eriotzako ordua. Oraindik ordea, luzaroan bizi egin bear dut. Bizi!

Azaroa'ren 2

Astiro-astiro... ari naiz azitzen! Iztarrak-eta, besoak-eta, beren itxura artzen ari zaizkit. Asko falta zaie oraindik, ala ere, nere iztar auei, amatxoren besoetara ni laisterrenean eramateko gai izateko. Asko falta zaie nere besotxoei ere, amatxori muxuan ttattar egin, edo landan loretxoak bildu, edo aitatxori lepotik eltzeko gai izateko.

Azaroa'ren 12

Baditut beatzak! Ikusiko ba'zendu zeñen txikiak diran, par ere egingo zenuke; baña, egun batean, illetik tira bear diot eskutxo auekin amatxori; eta baita beatz auetako bat aon sartu ere, sartu bear

diot! Axarre, axarre jarriko zait bear orduan, eta: «Juuu!, -esango dit- ez dago ongi ori: nini!»

Azaroa'ren 20

Noizbait! Gaur esan dio sendagilleak amatxori bizi naizela; emen barruan, bere biotzaren ondoan nagola. Bai pozik egongo dala nere ama, alabatxo bat bere sabelean daramakila jakin ondorean! Bai pozik! Ni, beintzat, pozik nago. Eta zu pozago oraindik; ez al da ala, amatxo? Ama: bai gauza ederra dala bizia!

Azaroa'ren 25

Seguruaski, aitatxo ta amatxo neri zer izen-ipiñi pentsatzen ari dira. Ez dakite neska naizenik. Apika ari dira neri Fernando izen-ipintzea pentsatzen. Nik, ordea, Garbiñe nai dut izan.

Abendua'ren 10

Ari naiz aundi egiten. Nere illea ere azitzen dijoo; ille ori, dizdiratsu, biguiña. Zein kolorekoa ote da nere amatxoren illea?

Abendua'ren 13

Nere begiak laister ikusteko gai izango dira. Emen barruan dana illun-illun egon bear du noski. Baña, amatxok argira ateratzen nagoenean, dana izango da argia. Udaren erdian jaioko naiz, mundua lorez dagon unean. Badauka loreak nolakoak diran ikusteko gogoa. Baña nik geien-geiena ikusi nai ditudan gauzak, nere amatxoren begiak dira, ta nere amatxoren aurpegia. Nolakoak dira zure ez-paiñak, amatxo? Eta zure begiak?

Abenduak 25

Amatxo, nere biotzaren taupadarik entzuten al duzu? Nexkato ta mutiko askok biotz aul, indarrrik gabea, izaten omen dute maiz. Jaiotzeko ere oso gaizki ibiltzen omen dira, ta jaiio-ondorean sendagileen laguntzari esker lortzen omen dute bizirik atera aal izatea. Ez da orrelakoa nere biotza, ez orixe. Tik-tak, tik-tak! O!, sendo lan egiten du nere biotzak. Nere amak beintzat ez du bere alabatxoa ilko ote dalaren bildurrik izango. Alaba bizkorra, alaba mardula, alaba gogorra ta bikaña izango da zure alaba au, amatxo. Zaude lasai! Bizi nai dut, amatxo; ta biziko naiz. Bizi!

Abendua'ren 28

Amak il nau. Gaur, gaberdian, nere amak berak il nau.

Irakurri duzun «Eguneroko» au ez da nik asmatua. Portugal'en irakurri nuan nik, aurreneko aldiz, sendagille adiskide baten zai-gelan. Ez dakit egia izanen dan edo ez, baiña nik irakurri nuan Portugaleko orri artan, «Eguneroko» au Wyszynski Varsovi'ko Kardenalak idatzia dala esaten zuan. Sendagille aren etxean bertan euskerara itzuli nuan nik Portugal'eko izkuntzatic, orain dala amartxoren bat urte, oso polita eta txit egokia iduritu zitzaidalako.

DON BIXENTE

BERTS LARIA



PELLO MARI OTAÑO

Zizurkildarra zan Pello Mari Otaño; bere jatorria, bertsolarien famili batean: batez ere, osaba Joxe Bernardo izen aundikoa izan zan.

Pello Mari, erri-olerkari goxoa, euskera ta oitura zarrak abestu zituana. Ikusi bere olerkiz osotutako «Alkar» liburua (Donostia, 1930).

Zaldi ta mando perratzaille zan arren, biotz samur-etzia zuan. Neurtitzen gainera, «Artzai mutilla» Opera ere idatzi zuan, eta 1900'eko Otsaillan ager-arazi zuten Buenos Aires'ko «Victoria Antzokia»'n.

Arjentina'ko Rosario de Santa Fe deitzen dan urian il zan, 1909'ko Maiatza'ren 7'an. Euskal-kantari onek biotz-intzirika opa zuan, bitzitz-mugara eldutzean, bere ezurak Euskalerrri'ko lurpean eskutatzea; ala ere, an urrun, txit urrun utzi bear, zoritzarrez.

Xanti ONAINDIA

Limosnatxo bat

Pello OTAÑO

Mutil kokkor bat utsu-aurreko
zubela aldamenian,
gizon burusoil bizar-zuri bat
bi makuluren gañian,
kale ertzian ikusi nuben
iñora ezin joanian.
Ta bera nor zan jakin nayian,
inguratu nintzanian...,
limosnatxo bat eskatu ziran
Jainkuaren izenian.

Zerbait emanaz galdetu niyon
-al zan modu onenian-
jayotzetikan al zeukan, ala
gaitzak artuba mendian...
Erantzun ziran: -Ez, semia, ez;
nik indarra nuenian,
ez nuben uste iritxitzerik
onetara azkenian...
Gaur limosna bat eskatutzen det
Jainkuaren izenian.

Eta jarraitu zuben esanaz:
-Lengo gerrate denian,
ni aurren xamar ibiltzen nintzan
beti edo geyenian;
nekatu gabe, aisa igoaz
aldapik luzienian.
Ez zan burura asko etortzen
-gu ala gebiltzanian-
gero limosna eskatutzerik
Jainkuaren izenian.

Odola bero eta burua
arrua daganian,
edozein eran sartutzen da bat
alako itsumenian.
Atsekabe ta negar-samiñak
badatoz ondorenan.
Nola erabat batek bizia
utzitzen ez duenian,
limosnatxo bat eskatu biar
Jainkuaren izenian.

Iñoiz pentsatzen nere artian
ni jarritzen nintzenian,
gaur ere asko dirala joango
lirakenak zuzenian,
ez lule iñork sinistatuko
zer pena ematen ziran.
Ai, ola nintzan ni ere, sendo
ta gazte nenguanian...
Gaur limosna bat eskatutzen det
Jainkuaren izenian.

Ai Txorakeri asko egiten
da, zentzurik ez danian...
Sinista zazu ur au pasia
daukanaren esanian:
obiago da, garai dan arte,
alegintzia lanian,
negar egiñaz ibilli gabe
gero denbora joanian...
limosnatxo bat bildu eziñik
Jainkuaren izenian.

Bertsolari bikaiña izan zen joan den mendearen azkenaldean Pello Mari Otaño. Baziren orduan, Euskalerrria'n, bertsolari jatorrak ugari; ala ere, Basarri bertsolariaren ustez, Pello Mari Otaño zizurkildarra izan genuen denetan onena. Ara zer esaten dion bertso eder batean:

Zure mingaiña bezin yayorik garai artan emen ez zan. Lorerik mardulena zu ziañan bertsolarien baratzen.

Zizurkil'go semea izan zen Pello Mari Otaño'tarra. Bear ba'da, zuk, irakurle, ez duzu jakingo Zizurkil non dagoen, baiña, Billabona bai, Tolosa'tik Donosti'ra bidean aurkitzen den Billabona, ezaguna izan duzu. Bâ, antxe bertan dago Zizurkil, eskerrerruntz, Oria ibaiaren beste aldera, Oria'k bereizten baditu Billabona eta Zizurkil.

Sagarrondotik sortzen diren zituak, frutuak, naitanaiez sagarra izan bear duen eran, naitanaiez izan bear zuen bertsolari Pello Mari Otaño'k, bertsolarien odola bait zekarren zaiñetan.

Aitona, Pedro Mari Otaño, bertsolari bikaiña izan zen, errietako plazetan, baita «Txirrita» ber-beraren aurka ere, maiz bertsotan egiña. Antxe, Zizurkil'dik bertan, Ernio mendiko maldan agiri den Larraul izeneko errian jaioa zelako, «Larraul'ko Barea» esaten zion jendeak. «Bare» izengoiti ori ez dakit zergatik eta nola irabazi zuen. Gero, urtetan sartu zenean, eta Zizurkil'go «Errekalde» baserrira bizitzera aldatu zenez gero, «Errekalde Zarra» deitzen zioten.

«Errekalde» baserri ontan jaio zen bere billoba Pello Mari Otaño, gure gaurko solas-aldi ontako bertsolaria.

Baiña, aitona ez ezé, bertsolaria zuen amona Mikela Lasa ere; eta ez nolanaiko bertsolaria. Geiago edo gutxiago, mundu guzia bertsolari zen «Errekalde» baserri artan; eta bertsotan mintzatzen ziren elkarrekin denak. Bertsotan idazten zien Pello Mari'k Ameriketatik, eta bertsotan erantzuten zioten etxekeok. Ara amona Mikela xaar-xaarrak nola erantzun zion bein

Pello M. Otaño

Egi'tar bi

batean, billoba Pello Mari gazteari, «Errekalde»'ko sukaldetik:

Laister ilko naizela du askok esaten. Plazo fijorik ez du gauz orrek izaten. Igaz bajutxo nintzan; exkaxago aurtin; laister Euskalerrri'ra ez ba'zera etortzen, elkar ikusi bearko degu Josafat'en.

Ez al zen lenen mailleko bertsolaria bertso oiek osatzeko gauza izan zen Mikela xaarra? Zoritzarrez, billoba maiteari beste-ainbeste alditan bidali izan zizkion bertsoak, galduak ditugu. Galduak baita ere «Errekalde»'ko sukalde paketsu artan, eguneroko jardunean. Pello Mari'k, bere anai Bernardo gazteak, osaba Joxebernardo'k, aitona Pedro Mari'k eta amona Mikela'k, gozoki batzuetan, samiñak jota bestee-tan, millaka eta millaka kantatu zituztenak. An, denak bertsolariak bait ziren. Aita Juan Pedro eta ama Juanabastiste Barriola bakarrik ez ziren, agian,

bertsolari; ez da, beintzat, bertsolarik izan zirenik esaten.

Ilbeltza'ren 26'gnean, jaio zen 1857'gn. urtean gure Pello Mari, Marijoxepa arrebarekin batean, erditze berean. Aitona Pedro Mari «Larraul'ko Barea»'k eta amona Mikela bertsolariak eraman zuten bataiara. Naitanaiez izan bear bertsolaria!

Izugarri maite izan zuten aiton-amon auek beren billoba bertsolaria. Aitonak «Errekalde»'tik bidali zizkionetakoak dira bertso auek:

Aitona Pedro Mari ta amandre Mikela ez pentsatu, emen, zutzaz azturik daudela. Orain ere ez daukate memori motela; ikusi nai ba'ituzu, atoz bereala.

Osaba Joxebernardo, berriz, bere garaiean, Euskalerrri'io bertsolaririk aipatuenetako izan zen. Ez omen zitekean orduan, Gipuzkoa'n beintzat, Joxebernardo'ren bertsorik gabe pestarik prestatu. Osaba-illobak bertsotan itzegin zioten beti elkarri, eta «illobak» esatean, Pello Mari ez ezik gogoan artu nai dugu onen anai, Bernardo gaztea, ere; baita au ere, bertsolaria bait zen.

Osaba Joxebernardo'ren bertso asko aipatzerik ez daukagu, baiña bere etorrera oparoaz jabetu zaitezten, Donosti'ko Loiola auzoan gertatu ziztaiona gogoratu nai dizut.

Igandea zen; «pestak» ziren, eta... «Joxebernardo'ren bertsorik gabe ez bait zitekean Euskalerrri'an pestarik», an zen orduan ere Joxebernardo. Bere bertsolari lagunak nor zituen ez dakigu, baiña berak zuen kantatzeko txanda, oraintze esango dizudan ateraldi au bota zuenean.

Bertsolariak obeki ikusiak eta entzuna izan zitezten, egurrez eta olez egon-toki altu garai bat prestatu zuten pesta-erazaleek Loiola'ko plazan, «Bilintx»'ek «txoria bera baino ariñago dantzan» neskata bat ikusi zuen plaza artan bertan. Jende asko, jende izugarri zen plazan, bertsolariei entzutera joana. Ez zen plazan sartzen, eta ala ere, jende geiago zetorren oraindik kale guztietatik bultza ta bultza. Alako batean, jendearen bultzada aietako batek, bertsolarien egontoki liraiñaren zutabeak astindu zituen, eta geitxo koloka-egiten asi omen zen egontoki osoa. Gizon aundi mardula zelarik, ikaratu-edo zen Joxebernardo eta onela ekin zion kantari:

Jendea arrimatzen gogor zaigu asi. Indarrean artuta, zeñek atze-erazi? Ez ba'gerade joaten emendik igesi, laister gera lurrean pulpittu ta guzi!

Gazterik aldatu zen Pello Mari bere gurasoekin Donosti'ra. Ta anitz donostiarr biurtu zen Pello Mari. Ez zeukan aztutzeko, ez orixe, andik aurrera, gure bertsolariak Donosti. Ara zer idazten zion Ameriketatik osaba Joxebernardo'ri lurralde urruti aietako aberastun eta edertasunak aipatuz:

Asko dionez, bizi gerade txit toki aberatsetan... Baiña ez dago Donosti'rikan Euskalerrria'n bestetan.

LIMOSNATXO BAT

Eta geroxeago Ameriketara Euskalerrri'z aztuta bizi diren euskaldunak aipatuz, onela dago oi:

**Nik Donostia eskatuko det
Paradisu'ra joanda're...!**

Baiña ez zen luzaroan Donosti'n bizitu. Ez zitzaion atsegiña Euskalerrri'ko giroa. Amaitu berria zen karlisten bigarren gudu, eta guztiz ondaturik gelditu zen, gudu-ondoren, Euskalerrri osoa. Orduan kendu zizkiguten, indarkeri zitatez, Madrid'tik gure Lege Zarrak, eta lapurkeri zipotz orrek izugarriko oñazea sortu zuen orduango euskaldunen biotzetan, bertsolarien bertsoetan batez ere. Oroi «Xenpelar»'en, Iparragirre'ren, «Bilintx»'en eta garai artako bertsolarien oñaze-ber-tsoak.

Ez zitzaion atsegin orduango Euskalerrri'ko giroa gure Pello Mari oneri eta beste euskaldun asko bezala, Ameriketara joan zen. Ara nola abesten digun bere orduango atsekabea:

**Gaur eta egun antsiatz dago
gure Euskalerrri ederra;
ta alde batera naiago nuke,
ez ba'nitz emengotarra.
Mundu guziak ezagutzen du
Euskalerrri'ko negarra.
Saiatutzeak balio ez ba'du,
zertarako degu indarra?
Au da... txoria, gari tartean
goserik egon bearra.**

Egon al ditteke gari artean txoria gosarik? Askatasunaren sorteri den Euskalerrri'n, ez zitekean, askatasunik gabe, ain askatasun-zale zen Pello Mari pakean bizi. Gaztea zen; bazuen indarra, eta bere indar oiek saiaketan jartzera Ameriketaruntz jo zuen. Saiatu,

bai; saiatu zen gogorki; baiña, beste euskaldun askok bezala, ez zuen deus aundirik erdietsi.

Ta Euskalerrri'ra etorri zen berriro. Donosti'n ezkondu zen neska on bikain eta jator batekin. Baiña ez zuen emen atsedetik aurkitzen eta itxasoaren beste alderuntz abiatu zen berriz. Oso ezaguna eta maite-maitea zen ordu-rako euskaldun guzien artean, eta jendetza aundia joan zitzaion Pasai'ko kaiera, bertsolari kutunari azken-agurra eman naiean. An zen «Txirrita», eta onela agurtu zuen onek:

**Otsailla'ren ogeitabata,
San Polikarpo eguna,
Pasai aldera majiña batek
pauso emana duena,
Amerika'ra dijalako
gure Pello Mari ona;
zeñek ez luke estimatuko
olako bizi-laguna?**

Arjentina'n ia iritxi bezain laister, bere emaztea il zitzaion. Euskalerrri'ra «emen ezurrak uztera» etorri naiean bizi izan zen beti; baiña, an il zen azkenean; eta an, «panpa» esaten zaion lurraide zabal artan dago illobiratua. Oneia abesten du bere azkena Basarri'k:

**Badakit ainbat urte itxasoz
aruztik egin zinula;
zure ezurrak Amerika'ko
Panpa zabalak ditula.
Zure gogoa ez zan emendik
inora aldatu sekula;
zure bertsoen usai gozoa...
bai indartsu ta mardula!
Jaio zinan lur bedeinkatua
bai gogoz maite zendula.**

Otaño'tar Pello Mari'ren ezaugarririk

nagusiena, bere oparotasuna da. Bertsolari oparoa izan zen Otaño. Oparoa, ugaria, irudimenez; oparoa, argitsua, adimenez; oparoa, aberatsa, sentimenez; oparoa, dizdiratsua, idazkeraz, bertso asko, Ameriketakoak batez ere, idatzi egin bait zituen.

Nere ustez, guk ezagutzen dugun Euskalerrri ontako bertsoentz bi sustrai izan ditu: «Xenpelar» eta «Bilintx». «Xenpelar»'en aldetik, Pello «Errota», «Txirrita» eta beste ainbat eta ainbaten bidez, gaurko bertsolariak datoz: Uztapide, Zepai, Mattin, eta beste gure bertsolari erriko maitagarriak. «Bilintx»'en aldekoa dugu, berriz, Otaño'tar Pello Mari. «Bilintx»'en aldetik, Iparragirre, Arrese Beitia otxandiñotarra, Enbeita «Urretxindorra», muxikarra, eta Pello Mari Otaño bera, bitarteko direla, gure aroko olerkariak (poeta) sortu zaizkigu; eta bertsolari aiña, olerkari diren bertsolariak: Basarri, adibidez, eta Xalbador.

Baiña olerkari ez ezê bertsolari ere bazen Pello Mari. «Kattarro» esaten zioten, bertsoak kantatzera edo, ozenki itzegitera zijoan guztitan izugarriko eztulak artzen zuelako. Par-egiten zion berak eztulketa arri! Ara bein, era baldarrean kantari ari zen eta inork ixildu ez zezakean bertsolari trakets bateri, sagardotegi batean, bota zion bertsoa:

**Ik baldin ba'ukake
nere katarrua,
ez uke ez aterako
olako orrua.
Naikua kantatu dek!
Ua ortikan, ua!
Txarria ba'itzake,
a, zer kankarrua!**

OSABA JOXE BERNARDO'RI

PELLO MARI OTAÑO

Pello Mari Otaño'k etxekoei bertsoan idazten zien beti Ameriketatik. Karta ontan bere osasun kaxkarraren berri ematen dio osabari. Lentxeago idatzi zion Joxeleon anaiari, eta karta ura aipatzen du oraingo ontan.

*Milla zortzireun larogei eta bederatziya da aurten.
Orra, ogei ta amabi urtek nola arrapatu nauten
ni lbeltza'ren ogeita seiyan, Errosario Santa Fe'n.
Nere osabak barkatu bezait, ixilik egon ba'naiz len.*

*Zer kontatuba pranko badaukat, ondo esango ba'nitu;
bañan, guziak karta batian ezin ditezke kabitu.
Sekulan ez naiz, orain aldiyan bezin nastuba, arkitu.
Joxeleon'i galde bezaio: notizi danak ark ditu.*

*Ai, zer ote da, goitikan bera, gizona bein amiltzia?
Beinere ez naiz arroa izan; bañan... au da umiltzia!
Ez nuan uste bazeikiala gaizkiago ibiltzia;
azken aldera, errematxatu zait len nedukan iltzia.*

*Rosario'tik Kordoba'raiño, Joxe anaiarengana
joan-ta izan naiz, lau illabetez, bizi naiak eramana.
Osasuna ta esperantza zan aruntzian eramana...
Oso estutik eskapatu naiz; ia galdu nuan dana.*

*Nola aparte bizitu giñan biyok denbora luzian!
Ai, ura gure ezin ase elkargana bildutzian!
Joxe'k ez zuan itzik somatzen, ni lepotik eldutzian;
orduaz ez zan poza besterik: lengo penak galdu ziran.*

*Bañan, luzaro ez zezakian gau artako umoriak.
Urruti zeuden aita Juanpello eta gure senidiak,
beti bezala maite ditugun aide ta adiskidiak...
Au pentsatzian, illundu ziran gure pozaren bidiak.*

*Gu, geyenian, gabiltza emen -esna ere- ametsetan:
beti pentsatzen familiko ta Euskalerrri'ko gauzetan.
Askok diyonez, bizi gerade txit toki aberatsetan;
bañan, ez dago Donostiya'rik gure lurrian bestetan.*

*Ameriketara ikusten ditut zenbait euskaldun arlote,
bizi diranak beren lurrari aitormenik eman gabe.
Ezaguerarik ez dute-ta, oiek barkatuak daude;
nik Donostiya eskatuko det, Paradisu'ra joan ta're.*

*Euskal-lurreko lore-baratza, zeruko intzez bustiya;
izarrak eta argi guztiyak itzaltzeko eguzkiya;
zure berdiñik inon ez dezun, biyotzeko Donostiya;
nork du mingañik zu goitutzeko, merezi dezun guziya?*

*Urruti zaude, eta zalla da ni zugana iristia;
onenbeste nai zaitun batentzat, bai bizimodu tristia!
Alaipide bat bakarria daukat: amets egiten astia!
Zu ikusteko noiz-nai, aski det... nere begiak istia!*

*Nere osaba Joxebernardo: iritxi naiz ontaraño,
ta ixiltzera noa, zer esan naikoa badaukat baño.
Gure berriyak zabaldu bitza derizkiyon lekuraño,
esanaz bere illoba dula Pedro Maria Otaño.*

ZAZPIAK BAT


PELLO OTAÑO

Zazpi aizporen gai dan oyala ebakirikan erditik, alde batera «iru» soñeko utzirikan, «lau» bestetik, guraiziekin berezi arren bakoitza bere aldetik, ezagutzen da jantzi dirala zazpiak oyal batetik.

Oyaltzat artu zagun Euskera, guraizitzat Bidasoa... Ibai koxkor bat besterik ez da; utsa ba'litz itxaso; elkarren urbil daude ZAZPIAK, muga deitzen da «Pausoa». Zergatik izan bear ez degu famili bakar osoa?

Arbola baten zañetatikan sortzen diran landariak bezela gera, Bidasoa'ren bi aldetako jendiak. Berdiñak dira gure jatorri, oiturak eta legiak; Ama Euskerak, magal berian, azitako senidiak.

Ama Euskera! Bere semiak gu Ameriketara zenbat arkitzen geran! Ta urrutitik maitiago degu, anbat. Emen ez dago, Bidasoa'rik, ta beste trabik an ainbat: Ama maitia indartu dedin, bizi bedi «ZAZPIAK BAT».



Lorrazak

MUNiategi'tar Sabin

Miseriaren lorrazak nabaritzen dira nun-nai; azpiratuen negar-otsak erabat nabarmen, deslai.

Ekaitzezko korapillo ari mataza samiña; biotzik ezaz egiñiko inpermutar etekiña.

Eriozpide gogorak gizonak egin ditunak; gosezko altxor, zigorrak, dezabakeri lizunak.

Aberetsen ari gara, ososoan lau-ankatzen; bakoitza bere erara suari aizea ematen.

Alan be, bai, badira bai, maitasunezko argiak; atsegin pozgarri, alai, loradun une bitziak.

Badira maitasunaren Ama Teresezko argi, erakusbide onaren ainbat izpi bizigarri.

Benetako iturriak, biotzak poztu ta, asetzen dituztenak, ta legortzen, malkodun begi gorriak.

Odeipeko euzkiaren ager-aldi pozgarriak; amets eder gurenaren ikutu maitagarriak.

ZER NAI DUK..?

PAULIN

Olerkirik zailena gizona berbara duk ederraren garrez; burua ta biotza bizi miñetan daukaz asetu bearrez.

Nora nai doalarik, odei arreek aurkitzen etsaien iduri; zeren billa abil, gizon, norberekeri baltzez oro itxuturi..?

Onik ez duk ikusten begi anker orreekin anaien artean; egiaren egia guzur biurtu al jak ire biotzean..?

ZAKURRA ETA AXERIA

Oraiko mundu ustelaren buruzagi handieneri, debriaren goresmenekin

Garazi'ko zakur bat, gure mendietan, zinezko tripakoia, goizetik zabilan, bazkaria nunbaitik beharrez atxeman; itzuli ta mitzuli, beti debaldetan, ez jakinik zer egin; bana, bat-batian, oilo bat agertu zen bide bazterrian.

Berroaren azpitik, utziz bere loa, ikusi zien ontsa zertan zen potzoa, bai eta zeri buruz zabilan gaizoa. Gure muttur luziak, ez baitzen zozoa, jauzi gaitz bat eginez, zabalduz ahoa, kalitu zien eta... ereman oiloa!

Berehala zakurra joan zen gogotik, lasterka tirahala, haren gihiletik, oiharzunak harrotuz, saingari loturik! Sasu batian aldiz, barrandan ixilik, axeri bat han zagon, hortzak xorroxturik, mutturra luze-luze, beharriak xutik.

Zakurraren orroak, nork ez ditu intzun? -Ohoink zikin debria! Hirekilan nihun ez litakek bakian egin trikun-trakun! Axeriak, ordian, izanikan urrun, irri handi batekin: -Etsai edo lagun, biak ohoinak gituk, bana ni xapeldun!



Adixkide maitia, ikusi kuk hemen, oraiko jende batzu nolakoak diren, tripa -mundu guzian- delarik nausitzen. Bihotzaren oihua ez baita zabaltzen, nola gertatuko da norbait aski zuzen erraiteko gizonki tzarkeria nun den?



P. HEGUITOA

AURTZOEN TXOKOA

Egun zoragarria

Egun goibel batean, Leitza'tik abiatu ginen Erribera aldera. Aurreratuz, Irurtzun'en elkartu ginen beste autobusekin. An daude bide asko eta azinduen salerosketa.

Irune'ra ailatzean, arto eta gari alorak ikusi genituen; oso bereziak iduritu zitzaizkigun, emengoen aldera. Emendik igarotzean, zearkatu genuen Uria, eta Ego-aldera aurreratu ginen, Sierra de Alaiz aldera.


Jetxiz, igaro ginen Tafalla'tik. Au da erri bat Iruine eta Muskaria'ren erdian dagoena, mendi eta zelaiz inguratua. Paisajea asko aldatzen da, eguraldia leorragoa delako. Emengo lurrek ematen dituzte: gari, maatsondo, olibondo... eta beste.

Erriberri'tik ikusi genituen Uxue'ko mendiak. An gosaldu genuen eta ondorean Erriberri'ko Gazteluan izan ginen. Gaztelua gudan errea izan zen frantzesek ez artzeko. Gazteluaren ondoan Dona Maria'ren eliza arkitzen da, «gotiko» tankeraz egina.

Kargaztelu'ra abiatu ginen bazkaltzera, eta Oliba'ko Monastegian gelditu ginen. Mairuak emendik uxatuz gero, Nafarroa'ko Erregeek donatu zituzten Oliba'ko lekue ta Kargaztulu, eta monjei tokatu zizaizkien. Eta egin zuten Monastegian bizi ziren praileak XII'garren mendetik, joan den menderarte. Eta azkeneko berrogeita amar urteetan, berriz praileak jarri dira Oliba'n bizitzen.

Kargaztelu'ra ailegatuta, maisuen baimenez bazkaltzen asi ginen. Bukatuta, errian bira eman genuen. Nekazari erria da, eta ain ur gutxi izatean, regadioaren bidez bustitzen dituzte beren lurak. Erribera'ko regadio auek oso zaarrak dira; Erromatarrek jarri zituzten eta gero Mairuek osatu. Emengo lur igaliak, erremolatxa, alfafa eta artoa dira. Azkeneko urteetan, barazkiek eta fruituek garrantzi aundia izan dute.

Errege-Bardenak basamortuaren antza du; ur bear aundia du eta belar gutxi ikusten da.



Erriberri. Nafarroa'ko Gaztelu-Jauregia. Fermín Iraola, «R. Baroja Ikastetxea», BERA.

Ordua ailatuz, etxera biratu bear genuen, goibelduta, bainan autobusean ederki pasa genuen kantari, saltoka eta oiuka. Azkenean etxera ailatu ginen, eta egun au izan zen bein ere ez aazteko modukoa.

ASUN MARIEZKURRENA
M.^a KARMEN REZOLA
Leitza, EGB 8'garrengoak

Olaxen izanduzan nereea

Bein batean asmatu giñun egin bear genula joan-etorri bat Erribera aldera. Goizean atera giñan Goizueta'tikan, goizeko zortziak aldera; atera giñanean, denak kantari.

Irurtzun'eko parean ikusi giñun bi aitz, erdaraz «Dos Hermanas» (Bi Aizpa) deritzen diotena. Irurtzun bitartean Goizueta'tikan ze diferentzia zego!

Gero, Panplone'ra alletu giñanen, karpeta batzuk eman zigun maestrak; an barrenean ziren: libruk, pregunta batzuk itxean egiteko, eta boligrafo bat bakotxari. Esan ziuten nai ba'gunen

apunteak artzeko; libruan epatzen zigun apunte guzik. Gu bidean joan giñan libruk eta gauz asko ikusitzen.

Señorita batek dena explikatu zigun: Panplona'ko aeropuertoa, «Diario de Navarra» egiten zen itxe bat, eta dena.

Panplone'tik aurrera ikus ginittun maatsa, garia, artoa, oliboa, eta gauz asko geiago.

Gero (Erriberri'ko) Gazteluara alletzerakoan, arrittuta gelditu nintzen. Sartu giñanean ikusi ginittun arrautza bezelako bat, conserba eukitzeakoa: lata antxoanak, attunanak, eta...

Gaztelura gotti io giñanean, ikusi ginittun gauz asko: arrizko eskalerak! Gotti io giñanean, Jesukristo'n altura zan, goitikan bera beitu-ta. Arrigarria zen! Baziren, gutxienez, berreun arrizko eskalera gotti alletzerakoan. Goittieneko alturara izandu giñanean, neska bat ikusi nun eserita eroitzeko moduan; andik erori ba'zan bizia len bai len galduko zuan gero.

Goitikan bera jetsi giñanean, ikusi nuen saltzalle leku bat; an erosi nuen boligrafo bat.

Gero joan giñan Oliba'ko Monjeen elizara; an fraile batek explikatu zigun an ziren gauzak. Orain dela eun bat urte, nola utzi zute eleiz ura. Eta lesakar fraile bat izagutu giñun.


Kargaztelu'n, bazkaria. Eta «Zagidantza» egin giñun motikok; eta neskek, dantzan, bailarinan gisa aittu ziren; eta gero denak kantari. luff! Larai!

Erri guzietan obekiña egin giñun. Merendatu eta etxera abitu giñen; autobusean aittu giñen kantari, eta altabozetik txistek botzen. Txferrak prisa zuen, eta eun ta berrogeika abitu giñan Goizueta aldera.

«Bi Aitz»'era alletu baño leen illuna zan. Goizueta'ko bidean, kurba aundi batean, gelditxo giñen, ezin pasatuz «Aurrera». Errira alletzerakoan, denok gure esperoan zauden, mutikoak eta gurasoak. Gero, itxean, aitik eta amak: —«Ongi irabo aal duzue?»

Eta nik esan: —«Espezial! Oso ondo! Eskerrik asko!»

FELIX PERURENA
Goizueta, 12 urte



Kargaztulu. La Oliba'ko Monastegia. Rosa M.^a Etxarren, IRURTZUN.

SUKALDEKO TXOKOTIK

Flakatzea ez baita gaztetzea!

PRAXKE

Arazoa orain illabete t'erdi asi zen. Nere iloba Pantxika ezkontzen zela, eta nai ta naiez arropa erosi bearrean aurkitu nintzen. Olakotan, jakiña!

Dendara abiatu nintzen eta betiko Pilitxi.

—Ongi, Pilitxi?

Oso ongi, Praxke! Eta i, zertan abil?

Ementxe, Pilitxi. Onezkero aditu duzu: Nere iloba Pantxika ezkontzen zaigu eta dendarako asmoan naiz; zerbait erosi bear, eta ze arropa erosi jakin ez.

—Arropa erostera esan dun, Praxke? Ori dun suertea, neska! Zer erosi jakin ezean? Iretzat obereña traje bat. Lodi samarra ao eta obe dun beti eramaten diren traje klasiko oietako bat: «Xanel» itxurakoa, adibidez. Ze elegantea!

—Bañan ez naiz trajezalea. Beti «bestido-abrigo» izena duten goitik berako zaku oiek ibiltzen ditut, edo bestela bi pusketako trajeak. Eta aspertuta nago. Oraingoan naiago dut soñeko bat.

—Kontuz, Praxke, kontuz! Ezta iñola ere! Qué disparate! Presona lodi samarrak orain eramaten diren koloretako soñekoak eta aurtengo modakoak gañera jantzita ez ditun batere ongi gelditzen. Ez al dun «Konkoxoneko Juananttoni ikusi? Iñauteriak ezkeroztik jantzi berriak gañetik kendu gabe zebillen eta ez dun orrelako olla lokarik (klueka). Beno, Praxke, dena esan bear diñat, eta i ez ago ain lodia, e! Ez gaizki artu gero! Bañan, ala ere, obe dun «dos piezas» delako bat. Alde ederra! Eta betiko koloretan, bexa, marroia, urdin illuna...

—Aizu, Pilitxi; eta zein dira aurtengo koloreak?

—Au Praxke, motellek! Por Dios! Qué «carroza»! Bañan oraindak ez

al dakin? Begira: oriak, laranja koloreak zeru-koloreak, frusiak, zuriak eta abar, neska. Gazte koloreak dittun, izugarri polittak, izugarri alaiak. Eta oraingo itxurak ain arroak azaltzen dittun... Soñeko aietako bat jantzi ezkerro, seguro amar urte gutxiago. Orain... ortako «tipoa» jarri bear dela. I ere otorduetako janari-edariak neurtzen eta murrizten asiko ba'intz... Egingtzan proba. Praxke!

Eta baita proba egin ere. Argi zegoen neretzat! Pilixi txoriburu bat zela denak bagenekien; bañan, ark edozein gauza jazteko eskubidea eta nik ez? Ziur nengoen: Pilixi nere aldean ez politagoa zen, ez gazteagoa ere.

Eta ni «olla loka»? Beno, ni ez; Juananttoni, bañan Juananttoni'ren ingurua eta nerea, ordea... Biok uztarri baterako modukoak...


Esan bezela proba egin nuen eta baita flakatu ere. Ilabete baten burura dendara joan eta ura poza! Nere talla berria 44 zen. Egia? Edozein soñeko jazteko aukera. Nere alabaren neurria nik? Arrigarria! Eta soñeko zerukolore zoragarri bat neregantatu nuen. Ura probatuko eta...

Dendan ere etzegoen erosle geiago eta saltzalle guztiak neri ekiten:

—Auxe badagokizu! Gerrian ain estu eta arro arro bestela, tximelata dirudizu. Amar urte (zorionekoak!) kentzen dizkizu, eta eleganteago ezin.

—Ura ilusioa nerea! Gaztetan bezelako soñekoan. A, ze-nolako lorreak entzun bear nituen Pantxika'ren ezkontza egunean!

Piperropilla bezain artoa agertu nintzen eztaietan. Nere alabaren ondoan eta alabaren pare nere ustez... Bañan, espero nituen lo-



reak non gelditu ziren?

—Praxke, gaizki egon al zera? Koloretxartua aurkitzen zaitut.

—Ola, aspaldiko! I beti polita eta elegantea, ximurtuta ere.

—Praxke, i al aiz? Pintatzea edo zerbait falta zain; ezpañak, benik... Triste xamar ago bestela, ez?

Ezpañak benik, pintatu nik? Bein ere pintaturik bear izan ez, eta orain «ezpañak benik» pintatu bear lengo Praxke izateko...?


Ez eta ez!

Orain etxean nago. Flakatzeko eta zorioneko urteak gutxitzeko asmoa alde batera utzi ditut. Naiago dut nerbiotatik lasai egon eta nere nortasunari eutsi. Ez dut gazte lorerik entzungo, baiñan len bezela esanen didate:

—Borobil-borobila ago, Praxke, bañam ire larru azala leuna... Zorion aurpegia dun irea; beti bezela ago, Praxke; sasi arrosa bezelaxe.

Ementxe natorkizue berriro! Eta baikor gañera. Zer dela eta? Bi kilo irabazi ditut eta poza.

IRUNGULUA (Ajoarriero)



Bakalloa apurtu.
Baratzuriak prejitu.
Olioaren erdia kendu.
Olio epeldu eta bakalloa jarri.
Olio geiago bear ba'du, bota; edo kendu geiegi-koan.
Tomate-saltsa egin eta artoa kolorea artu arte, bakalloari bota.
Eta gustoak ba'duzue, piperrak.
On dizuela!



• ERRIZ - ERRI •

Baztan

IÑAUTEAK

Aurtengo Iñauteak ospatu dira alaitasun ederrean. Ohitura den bezala, Iñaute aintziñeko ortzeguenean, Orakunde deitzen den egun hortan, eman zitzaion hasmenta Iñauteari, haurren besta ospatuz.

Aurten ere, baztandar hurrek ospatu dute «Ortzegun Gizen» hori, herri bakotzak beren besta berezia eginik.

ELIZONDO

Ondoko igandean, Iñaute, eta gazteria arro besta ederra egiteko nahikeriarekin. Igande hortan, Elizondo'ko «Kalaxka» soñulariek alaitu zuten eguna, plazan soñua-aldi ederra eginik. Arizkun'en, Erratzu'n eta Baztan'go bertze herri batzuetan ere hasmenta ona eman zioten Iñauteari.

Astearte hortan goiz-goizetik aro txarra, uria atertu gabe, hotza bazterretan, eta elurra ere beitixko etorria. Negu denbora bai, baina besta egiteko hauta. Elizondo'n ostatu guziak beteak. Gazte taldeek, eta hain gazte ere ez direnek, otordu ederra eginik, beren bozkarioa agertu zuten Iñaute seinalea nabari zela. Arratsaldean, Elizondo'ko karriketan, mozorro eta Iñaute pertsonaiak, beztimenta nabarmenak, talde irringarriak eta mugimendu haundia bazterrez-bazter, alaitasuna, irria eta bozkarioa. Ilunabarrean haste, plazan soñua, yendea sasoñean. Elizondo'ko Iñauteak ongi gan dira.

ARIZKUN

Arizkun'en ere eta ohiturari yarraikiz, Iñaute ederrak ospatu dituzte. «Hartza» bildurgarria ibili dute karriketan barna, katez loturik «hartza-zaina»'ren eskuetan. Mozorroak eta Iñauteiko pertsonaiak harat-hunat ibiliz eta bestari «Iñaute-giro» ona emanik. Ohitura xaharrari yarraikiz, «Sagar-Dantza» ere erakutsi dute. Mutil-Dantzak, Soka-Dantza, Zortzikoak eta «Gaite» ere dantzatzuz, gazteria ederki yostatu da Arizkun'go Iñauteari ohore emanik. Aurtengo Iñauteak ederki ospatu dira.

ERRATZU

Erratzuarrek ere erakutsi dute beren Iñauteak oinarri sendoa daukala. Umore ona gauza guzien gainetik, soñua ta burrunba bazte-

rrak ederki Iñarosten dituztela. Plazan, soñua eta gazteria alegera. Denbora txarrak ez du Iñor izitu, eta Iñauteak ederki gan dira. Auzako kaskoan hotz, baina gazterriaren sasoia bero.

Lehenagoko denboretaz oroitzuz, Iñauteak eta besta guziak ere nabari dute aldakuntza eta anbatekoa halere. Gure haur denboran eta geroago ere, illunabarrean edo zazpietako beranduen, plazako

soñua ixiltzen zen, eta holaxe ikusten dugu orai nola lehenago akitzen zen tenorean, orai hasmenta ematen diotela. Soñua berant hasi eta berant akitu: gau t'erdi.

Eta orai, ager dezadan gure haur denboran kantatzen ginuena, eta oraiko gazteek ez dakitena:

**Mozorro zinko mukitzu,
sobera, sobera badakizu.**

M. IZETA

Leitza

A. Zabaleta Leitzeke Irunaga-txiki baserrian 1948ko abuztuaren 2an sortu zen. 1966ean atera zen plazara aurreneko aldiz; geroztik hamaika laster egin du entrenamendu, apustu, maratho eta crossetan. Beharbada ez du marka edo apustu aipaturik uzten kirol mailan, baina igandean beste maila baten marka ederra utzi digu: Aspal-dian ez da hoinbeste Leitza bildu herriko seme baten omenaldira.

Agustinen lagun batzuei bururatu zitzaien omenaldi bat egin behar ziotela hamar bat adiskideen artean bazkaritxo bat egin bidenabar. Minttorla, Buxika, Musun eta Barrenek antolatuz zuten egun hau. Hasiera meza eman zitzaion; ondoren lasterkariak, harrija-sotzaileak, ahariak, haizkolariak; etorri ziran ere Beteluko kirol-taldeko lasterkari gazteak. Kirol une hau, akordeon, pandero eta Amurizaren ateraldiez oso atsegina egon zen.

Ehun eta hogei eta sei bazkaltiar bildu ziren Agustinekin bazkaltzera; ia denak Leitza. Batzutan ez da organiazio, ofizialtasun eta babes haundirik behar jendea bateratzeko; kirol-marka eta ofizialtasunak ez baitira aski izaten adiskideak edukitzeko.

Bazkal garaian, Agustinen kirol-kondairatxo bat eman ziguten. Lenengo

Zabaleta «Lasterkaria»'ri Omenaldia

aldiz plazara «I. Juegos rurales Vasko-Navarrosen» Leitza atera omen zen; 1966ko irailaren 8an. Handik laster Elgoibarko crossean ere hirugarrena gelditu zen; eta handik aste batera Leitza papeleran lana egiten zuten Cestonatar batzuk Zarauzko «Maiz» lasterkariarengana eramane zuten, Lasarteko cross internazionalerako prestatzera; arrozoiakin edo gabe, Agustinek ez zuen Lasarten ibiltzerik izan. Gipuzkoarrek Agustin hartu nahi izan zuten baina Agustinek orduan eta gero ere nahiago izan du obretan, papeleran eta baserrian lan egin noizenbehin lasterka ibiliz eta ez osotara lasterkara emanaz. Halere geldirik egon da ez dira etxera ekartzen ehun eta bi kopa, hamar zapela, hamazazpi medalla, plaka, eskudo eta gainerakoak. Cross askotan parte hartu du, bi marathonetan ere bai. Bost apustutatik lau irabazi eta bosgarrena enpate:

1.-1974ko ekainaren 16an Bedaioko E. Aguirrezabalakin (8 kilometro).

2.-1976ko apirilaren 4ean Asteasuko J.J. Irazustakin (8 kilometro).

3.-1977ko urtarrilaren 16an Asteasuko J.M. Tapiakin, Agustinek buelta erdi bat (50 metro) eman da (8 kilometro). (Enpate).



Omenaldian, oroigarri batzu eman zizkioten adiskideek Leitza'ko korrikalariari.

4.-1977ko otsailaren 27an Huitziko J.I. Ariztimuñokin; buelta erdi bat Agustiñek eman da (8 kilometro).

5.-1977ko apirilaren 10ean Astea-suko J.M. Tapiakin, buelta bat Agustiñek emanaz.

Omenaldiko bazkaria ezin obeki igaro zen; Amuriza eta Azpillaga, ekordeon eta pandero elkarri txanda ezin hartuaz. Bazkaltiarren partetik Euskalerriko koadro bat eman zitzaiz Austineri; Aurrera, Bar-Txoko, Basakabi eta Mugikatarrek ere eman zizkioten oroi-garri batzu; J. Ignacio Azpirozek gastuetarako eman zituen hiru mila peztak Txanpaneanean gastatu ziren bazkal ondoan. Ilunabarra besteak beste Leitzako Txarangak alaitu zuen. Egun hontan, denek, borondate hutsez parte hartu zuten kirola eta gainerako gauzetan; eta egin ziren gastuak bazkaltiar guztien artean ordaindu ziren. Omenaldi honen antolatzaileen partetik eskerrak denek.

Zorionak zure Aitetamei eta zuri Agustini, adiskideen partetik.

J.M.A.

Erronkari

IKASGUARI BURUZ

Orai, ikasguetan, gisa onez eta belloki ebiltan ditugu morroiak. Ta korrela egitan da pedagogiak erraitan daikuguna betetako; berzela morroiek konplejo anitx artuten lozkei eta traumatruk anditu zaitekian.

Gore tenpran bizia gogorrage zen eta ekuteak ere. Ikasguetan, makilakaldiak eguneroko gaizak ziren.

Kona keben Mendigatxa'k Azkue'ri erraitan zauna karta batean:

«Maistroek ene tenpran zakien txikiago...ezik oraikoek, baya eratsukitan zien obro, zafratan baigintien».

Beste altetik, onki dakigu Erronkari'ko iri guzuetan «Oillokunde eguna» xei andi bat zela.

«Oillokunde egunean, oilloa makila baten puntan lotruk, morroier begiak estalten ziozkan maisuak; gunean, iru makilakaldi aldi bapanean emon tan iltan ziona, maisuareki xoaitan zen oilloaren xatra». Eta kau ekusteko, iri guzua eta alkate eta apeza.

KOPLA GITARRARENTAKO

Aita batek alabari egun batez erran zaun: badun ogeitaborz urte eta bordaltu bear dun.

ERRAPENA

«Anitx daki saguak, baya obro gatuak».

J. ESTORNES LASA

Donostia

ETXANIZ'TAR NEMESIO JAUNA ARPEGIA EMATEN ZUANA



Don Nemesio, beti kantari, musikalaria yayua bait zan

Don Nemesio Etxaniz gure etxera sarri etortzen zan; illean bein bañon geiagotan. Atea jotzen zuanean, nere emazteak aixa ezagutzen zun nor zan, tanbonilla jotzen antzera bait zan. Emazteak esaten zuan: «Don Nemesio da or». Eta adiskidea sartzen zan; beti

Azken aldian, ordea, makal xamar zebil. Gertatu zitzaidan kalean elkar joka igaro ta, agur esan-da, ez zan goaitzen zein nintzan. Etxeratu ta emaztiari esan nion: «Don Nemesio naiko

makaldua dabil; bere pentsakizunetan edo or joaten da bakarrik, Urumea alboan inoren agurketari jaramonik egin gabe».

Zenbat elkar-itz ogeitaka urte aue-tan! Nere emaztea bezela, azkoitiarra zan Don Nemesio; orrek eraginda edo, elkarrenganako maitetasuna genun.

Ez zait azten, bein batean bera ikusi nuanean, estualdi aundi batez, zirimara ibilliz, gure etxearen inguruan...

—Zer zabilzt?

—Ai, motel! Gobernadoreak estualdia ematen dit. Emen nabil militar bat ikusteko asmoarekin, nere aldea egin dezala.

Eta antz eman nion zein zan militar ura.

Bai, egunak ziran aiek! Don Nemesio'k gogor eta bikain idazten zion Gobernadoreari. Esan esanalak, zer gertatzen zan espexetan sartzen zituztenakin... Beti Don Nemesio arpegia ematen duena. Bañan, aldi ontan, gure adiskidearentzat okerrena: oraingo idazkia Bidasoa'z bestaldeko izparringietan argitaldu zuten... Angoak txapelduta zeuden; Gobernadora asarratu, ta Don Nemesio arpegia eman bear duana.

Orrela bizi ta orrela joan zaigu ain maite genun lagun jatorra.

E. OZKIN

Garazi

«POLITIKA» ZER DEBRU DEN

Otto Pettan maitia:

Bazterrak kexu herrian! Paris'eko goberniak ezpaitixi fitsik egi-ten gure ikastolen laguntzeko. Dirurik gabe, nola bizi? Alta, gure Jaun Handiek erran zixien eginen zutela ahal den guzia euskara ez dadin hil. Hitz eman eta, ez dixie hitza janen araz! Hortan, aita erasian hasi duxu, erranez hemengo Euskaldunek, ezti-eztia geldit-zen balin ba'dira bakotxa bere xokoan, jeusik ez dutela ardietsiko. Bai eta paristar horiek, itsiak bezan elkorrak direlaketoz, ostiko eder batzu behar luzketela ipurdian, iratzar ditin nunbait!

Ama eta Katixa, ene arreba handia, ixillik zitxun. Bana biaramu-nian, Garazi'ko jende andana batekin izan ditxu Baiona'n, behar zutela ibili oihuka hango kariketetan. Bazitxun omen hiru mila Eus-kaldun, Suprefetari ikus-arazteko zoin atxikiak ziren euskarari. Zonbaitek ere kantatzen zixien Garazi'ko olerki zahar baten leloa:

Euskara, jalgi hadi kanpora!

Euskara, jalgi hadi plazara!


Euskara, jalgi hadi jantzara!»

Gure Katixa segurik loriatia zuxun bere ibilketaz, zernahi gazte-ria baitzen Baionan, denak su eta gar zutela gogoan. Amateki aldiz kezkatia, zeren eta gertakari horiek ez dutela ezituko goberniaren politika gogorra... Ordian, amari galdegin diakoxut zer ote den «politika». Berehala samurtu duxu, eta eman diaxu bi zarta, oihuka erranez politikaz ez niela mintzatu behar ene adinian! Izigarri duxu nola etxeokak kexatzen diren, «politika» debru hori aipatu orduko. Ez duxu gehio jendetasunik herri huntan!

Otoi, Otto Pettan, xuk bederen adi-araziko dataxu xeheki zer den «politika», nuntik ateratzen den, eta nola gudukatzen ahal den kotsu madarikatu hori. Segur nuxu Ameriketean ez duxula sekulan jasaiten hemen bezalako eztabadarik. Denak ados, denak aberats, denak goxoa bizi, hala zirezte omen. Hauxe da herri maitagarria! Oi zer zoriona duxun bestenez!

Orai uzten xitut, Otto Pettan maitia, biharko behar baitixit ikasi bertsu pollit zonbait, ene lagunekin kantatzeko Garazi'ko Ikastolan. Igortzen dauzkitxut ene pott handienak. Izan ontsa eta bestalde artio.

GILEN



KIROLAK

Federazioen Txapelketa eta «GRAVN» izeneko Leiaketa

Beristain eta Tolosa Txapeldun Zergatik?

Ez errez; ez orixe! Baiña, azkenean, garaille atera izan dira Bikoteen Txapelketan, IV Garzia Ariño eta II Maiz menderatu ondorean, Beristain erretil-darra eta Tolosa amezketarra. Zergatik?

Gogora dezagun, joan illegal esan genuen bezala, II Retegi'k patxada-faltaz galdu zuela Logroño'n Txapelketa, au irabazteko egokitasuna. Baiña ori kontuan artuta ere, zergatik izan dira garailleak Beristain eta Tolosa?

Nere ustez, une ontan atzelaririk onena Tolosa delako, eta Beristain ere, zugurki jokatzeko duenean, aurrelaririk onenetakoa delako. Beristain'eri ez diote etsaiek irabazten; berak galtzen



ditu —eskubiko olak jo, burnia jo, goiko oiala jo—, berak galtzen ditu tantorik geienak. Txapelketako partidu auetan zugurki jokatu du, eta irabazi egin du.

Jakiña den bezala, pelotari bizi ez diren pelotan jokatzeko zaleak sartzen dira bi pelota-jardun oietan.

Borroka, esku utsezko partiduetan beintzat, Euskalerrri'ko eta Errioxa'ko pelotarien artean izaten da urtero.

Aurten, dirudienez, naparrak eta bizkaitarrak dira trebeenak, eta Nafarroa edo Bizkai izango da Txapeldun Federazioen Txapelketan. Araba izan zen igaz. Aurten... Nafarroa?

Otarrez (zestuz) Katalunya'k eta palaz Madrid'ek lan pixka bat eman lezaieke. Baita eskuz Zaragoza'ko bikoteak ere, primerako partidua egin bait zuten auek «Mendizorrotza»'n, eta tanto batez (22-21) arabarren aurrean galdu; baiña, ez dut uste Nafarroa'ri edo Bizkai'ri txapela kentzeko gai izango direnik.

GRAVN'en ere Bizkai'ra edo Nafarroa'ra etorriko da Txapela.

ERASO

Pilota-Jokua (II)

«Beien erroa jatxiago. luzeago»

(J. Urkijo'ren «Refranero vasco»)

Orrela dio esaera zaarrak eta berdintsu gertatu zitzaion Larreborda'ko Martiuxe gizajoari ere. Leengo egunean nion bezala, aurreneko partiduan berreun mila pezeta galdu zituen. Sakela estutzean, luzatu egin zitzaion, beiazen errapeari ustutzean gertatzen zaien bezala. Eta, oraindaiño beitz bakarria erabili ba'zuen, aurrerakoan bi eskuetako beitzak gutxi zituen.

—Zer egin dek, Pakitto?, galdetu nion bein diru jokatzaille bati.

—Kitto atera nauk, erantzun zidan.

—Galtzen duenean irabazi egin duela esaten dik eta, pentsa ezak zenbat galduko zian ori erantzun duenerako, belarriratu zidan nerekin zetorren lagunak.

«Jokatzaillearen sakelak, bi zulo» dio esaerak eta gure zaarrek asko zekiten.

Baiña ez pentsa diru jokatzeko ori gaurko kontua denik. Martiuxe asko izan dira Euskal Erria'n betidanik.

1846'ko Abuztua'ren 9'a ain zuzen. Irun'go erria lepozurretaraino beteaz aurkitzen zen. Hasparren'go pilotariak alde batetik, Donostia'koak bestetik. Dirurik ez eta, bere ordeaz, idi eta txerriak partidura eramane zituztenak ere bai omen ziren. Oraindik erein berria zegoen artoa ere jokatzera ailegatu zirela, diotenez. Kiputzek duroz beteaz eramane zuten mandoa, bereala arindua ikusi zuten. Irabaziko zutelakoan, usoak eramane omen zituzten leenbailleen berria Donostia aldera bidaltzeko, baiñan, zoritxarrez, Donostia'ra joan bearrean, Lapurdi aldera artu zuten, aurrerakoan janik aurkituko ez zutelakoan.

Bai, ez da gaurkoa frontonetan diru jokatzaleei gertatzen zaiena. Eta dirua goitik botatzen ari direnen aldekoek irabazten ba'dute, tira, baiña... buelta latzak ere ikusi izan ditugu.

Tolosa'ko Beotibar'ean zen, orain dela urte morderoxka. Ogeta eta Tapia I, alde batetik. Bestetik, Barberito eta Azkarate. Sasoiaren zegoen Ogeta. Azkarate ere txapeldun izango zen urte artan noski. Dena dela, partidua kolorerik gabe jarri zen 21 eta 4, Ogeta eta Tapia'ren alde. Asieran diru franko jokatu zen, baiñan, auek errez

irabaztean, laster gelditu ziren korredoreak. Ogeta, 21'garrena sartu ondoren, aldagelara abiatu zen, bukatu zelakoan, baiñan jendearen irristuak entzutean, berriro frontonera itzuli zen.

Asi zen, orduarte otz samarra aurkitzen zen Barberito, tantoak sartzen. Busti zen piskaren bat pilota-lekua eta... 21 era berdinekin. Dirua jokatu zutenei, pastorratz bat epurdian sartzen ez zitzaiola. Azkeneko tantoa, Azkarate'ren utsak txapa gainean jo zuen eta, partidua Barberito'ren aldetik joan zen.

Nork esan tongoa izan zirekeela? Ez, bein 21 era iritsiz geroz, ez dago txantxetan aritzerik, frontona bustia ba'dago, gutxiago oraindik. Baiñan, pillota borobila izaki...

Ori baiño okerragoa ere ikustera iritsi izan gara. Ez dugu pekataria aitortuko, pekatua baizik. Lau pilotari frontonean. Lauak galdu naian eta noski, denak ezin galdu. Jendea oartu zen eta, jokatzeko ari zen pilotari batek, jaso zuen pilota, abiatu zen, arnasa artu naian bezala ate aldera eta... oraindik ez dutela aurkitu. Antxe gelditu ziren diru jokatzailleak mutur joka. Duroak jaso bearrean, beste «gogor» batzuk artuaz.

Nafarroa'ko errixka batean zen orain agertzera noana. Bere egunean zalaparta aundia atera zuen eta iraun izānen dira berrogeita hamarren bat urte. Banakako desapioa zen. Asi zen partidua eta, Jesus batean, 21 eta uts jarri ziren. Irabazten ari zenari urbuldu zitzaizkion bere taldekoak eta, tantoren bat besteari uzteko agindu zioten. Utzi ba'zion, utzi. Artu zuen onek sakea eta zuzenean beste 21 tanto egin zituen. Denak saketik. Frontonaren ezkerretara aurkitzen den arkupean sartu zituen sake guziak, besteak ekartzerik ez zeukala. Pilota borobila dela...

Baiñan, ni oartu ordurako, Martiuxe'k aldegin dit. Zaudete, banoa tragoren bat artzera joan ote den ikustera eta.

YON ZENARI



SUMARIO

1

BIZIA LANEAN ARI. Misteriosa actividad de la vida en el silencio eficaz de la madre tierra, de la mujer madre, de los viejos pueblos.

2

EUSKALERRI'KO LEIOA. Ventanal de Euskalerría. **EUSKALTAINDIA.** Acta de la reunión de Iruña.

3

BIOTZEZ ALDATU. Cambiar! La consigna cuarestmal del Papa.

4

BEIN DA BERRIZ ARALAR'KO ESMAILAK. Un saludo a Madame Gauthier; ella sabe de esmaltes!

5

ERREUMA ARINTZEKO (II). Para aliviar el reuma nuestro MEDIKU ZAARRA nos pone a hacer gimnasia.

6

SABEL-BARRENDIK AURTZO BATEN «EGUNE-ROKOA». «Diario» de un no-nacido.

7

BERTSOLARIA. S. ONAINDIA y EGI'TAR BI, con «Pedro Mari Otaño», bertsolari de estirpe (hasta la abuela Mikela hacía versos), emigrante y romántico, herrero de oficio, elegante de alma, aldeano de origen. autor de ópera en Buenos Aires... Y más versos de Muniategi. Paulín, Heguitoa.

11

AURTZOEN TXOKOA. Noveles escritores, **Asun Mariezkurrena** y **M. Carmen Rezola** de Leiza, y **Félix Perurena** de Goizueta, relatan con buena pluma -y premio- su «Viaje cultural» a la Ribera.

12

SUKALDEKO TXOKOTIK. «Adelgazar no es rejuvenecer». Y que lo digas. FRAXKE!

13

ERRIZ-ERRI. Carnavales en Baztán. M. IZETA. Korrikalaris en Leiza. J. M. A. La vieja escuela, en Roncal. J. Estornes. Y en Donostia. «Un hombre que dio la cara», por E. OZKIN. La «política» al otro lado de la muga, GILEN.

15

KIROLAK. Pelota. Beristán y Tolosa; Federaciones. GRAVN. por ERASO

PILOTA-JOKUA (II) de Yon Zenari.

16

«XALBADOR» SARIKETA. El premio de la C.A.M. para Xiprien Arbelbide, un escritor bajo-navarro. Zorionak, aspaldiko! M. G.

«BIZITZ-ARRATS ZORIONTSUA». Sencillo, gustoso, útil y breve (dos veces bueno), el libro que el P. Zubiaga brinda a «la tercera edad».

«BERMEO». tema de un Concurso en euskera.

LIBURUAK

«bizitz-arrats zoriontsua»

Gizakumeen bizitzak badu bere udaberria eta badu bere udazkena ere. Bizitzaren udazkena, zaartzaroa, «irugarren adiña» orain esaten dutenez.

Zaartzaroa aro ederra da; emaitzaz eta frutuz betetako udazkena bezala. Oker dabil jendea uste duenean zaartzaroa trie xamarra eta illunagoa dela, egunaren arrats-aldia bezala. Baiña, kolore gorri arrigarriz apaindutako arratsa ez al da egunaren aldirik ederrera? Gaueko atsedena dakarkigu arratsak, eta egun berri baten agindua...

Gozoa, itxaropenez betea izan bear du gure zaartzaroak ere. Gure arratseko orduak pozgarri izateko, idatzi du Aita Zubiaga'k liburu berri au: «Bizits-arrats zoriontsua». Gure aiton-amonek irakurri bear dute beren zaartzaroa pozez bete nai ba'dute.

Zure liburuau «irugarren adiñaren urte» ontan eskeintzen dizugulako, eskerrik asko, Aita Zulaga!

bizitz-arrats zoriontsua

M.M. ZUBIAGA



1982. zaarren urtea

«XALBADOR» SARIKETA

NAFAR IDAZLE BATEK JASO DU AURTEN SARIA

Bederatzi lan aurkeztu dira aurtengo «Xalbador» sariketan. Orain dela denbora franko Iruña'ko Aurrezki Kutxa'k antolatu zuen Sari ori urepeldar Aldude'ko bertsolari zenaren izenarekin. Auxtin Zubikarai eta Bingen Zubiria ziren Epai-maikoak, eta beren erabakia «Irri-solas» libururaren alde izan zen.

Xiprien Arbelbide dugu liburu orren egilea, gure aspaldiko Xiprien, orain Uharte-Garazi'n apezga, gure Be-Nafarroa'n edo Seigarren Merindadean.

Arbelbide apezak, Afrika'n mixiolari egonik, anitz ongi daki mintzaera berezia dela erri bakoitza kristautatzeko bidea. Orrengatik, Euskal-Erri'ra bueltaturik, euskarari eutsi dio bere lanetan. Aldi berean, euskararen balioa gorazten du bera maiteki lantzen: or ditugu orain Iruña'n saritutako liburua eta «Gure Irratia» izeneko euskaldun irrati txiki batean egiten dituen saiokak.

«Xalbador Saria»ren V'gn. argitaldi au, ogei ta bost mille durokin orniturik dago, eta alaxe jasoko ditu benafartar idazleak.

Aurtengo sariketan aipamen berexia merezi izan zuen «Arantza» izenburuaz aurkeztutako lanak; lau arantzatar lagunek: M. Legarra, L. Andueza, Kontxi ta Klemen Irigoyen'ek egin zuten lan ori. Aipamena merezi izan duen lanaren alde, Epai-maia esan du 50.000 pezta. saria emateko.

Gure txaloea irabazi duten euskal idazleei, baita Iruña'ko Aurrezki Kutxa'ri ere.

Garde'tar M.



«BERMEO» LITERATUR LEIAKETA

— OÑARRIAK —

- 1 Nai duten idazle guziek artu dezakete parte. naiz edozein jatorrikoak edo non-naikoak izan.
- 2 Leiaketa onetara aurkeztutako lanak, euskeraz idatziak izan bear ko dute. Bizka'ko euskeraz ain zuzen ere. Gaiñera, orijinalak eta argitara eman gabe izan bear ko dute.
- 3 Gaia «BERMEO» izan bear ko da; au da. Bermeo'ri buruz idatzitako edozein eratako idazlanak, bai ipuiñak, kontaketak (gertatuak edo asmatuak), etnografi edo edesti lanak, eta abar.
- 4 Lan auetan, literatur aldeko balioa neur-tuko da bakarrik, eta ez eduki luketen beste eratako garrantzia edo balioa.
- 5 Lan auen luzera, gutxienez bost orrialde-koa izan bear ko da, bi tarte-unetaz eta alde batetik bakarrik mekanografiaturik.
- 6 Lanak bidaltzeko epea. 1982'gnaren. Jor-railla'ren 30'ean bukatzen da. Bidaltzea ondorengo zuzenbide onetara egin bear ko da:

Bermeo'ko Batzokiaren Kultur Batzordea
Askatasun Bidea kalea, BERMEO (Bizk.)

Lanaren bukaeran lema bat jarri bear da. Eta lanarekin batera, beste kartazal bat bidali bear ko da itxita. Kartazal orren kanpoaldean, lema ber-bera jarriko da, eta barnean egillearen izen-abizenak, bizilekua ta izenpea.

- 7 Bermeo'ko Batzokia'ren Kultur Batzordeak berak izendatuko du epai-maia, eta onek, Maiatza'ren 31'gna. baño lenago, agertuko du erabakia.
- 8 Leiaketan izango diren sariak auexek dira: Lenago Saria, 50.000 pezetakoa. Bigarrena, 20.000 pezetakoa. Eta 10.000 pezetako aipamen bana, iru urrengoztat. Saritueteriko bat, 18 urterik berako bermeotar bat izango da.
- 9 Saridun lanetaz jabetuko da Bermeo'ko Udala.
- 10 Sariak ematen direnetik urtebete garrenar-te, Bermeo'ko Udalak argitaratuko ez ba'litu saridun lanak, eratzailleak -au da, Bermeo'ko Batzokiaren Kultur Batzordeak- luke eskubidea lanok argitaratzeko.
- 11 Oñarri auetan eta leiaketa bitartean izan ditezken goraberatan, Bermeo'ko Batzokiaren Kultur Batzordeak izango du azken itza.
- 12 Leiaketan parte artuz gero, ezin-bestez onartu bearrekoak dira kezka-aldiko oñarri-riok.



FORAL POPULUP
ENKIDE EPPREZKIA